

Bizi Odieta

COMUNIDAD ENERGÉTICA



KOMUNITATE ENERGETIKOA

Bizi Odieta Energia Komunitatea aurkeztu nahi dizuegu. Gure bailaran sortu berri den ekimen honen xedea, energia-eredu bidezkoago, jasangarriago eta lokalago baterantz elkarrekin aurrera egitea da.

Proiektu hau ilusioz betetako bide baten emaitza da. Hitzaldi ziklo batekin hasi zen, eta hauetan, energiari buruzko gure ezagutzak zabaldu eta Nafarroako landa-eremuko energia-komunitateen ezberdinen esperientziak ezagutzeko aukera izan genuen. Baina, batez ere, saio haien emaitza kezka komun bat zuten bizilagunak batzea izan da, Odietan trantsizioa eta burujabetza energetikoa bultzatzeko taldea sortuz.

Lau hilabetez, herritar guztiei irekitako formakuntza jasotzeko aukera izan genuen eta hogeit bat lagunek hartu genuen parte. Prozesu horren ondorioz, urte hasieran beste urrats bat egitea erabaki genuen, eta **Bizi Odieta Komunitate Energetikoa** Elkartea sortzea.

Harrezkero, harrotasunez eta pozez esan dezakegu hilabete hauetan egindako lana (bilerak, informazioa, eztabaidak eta erabakiak) ernatzen hasi dela. Gainera, prozesu honetan guztian zehar, hainbat lankidetzat sortu ditugu, eta, gaur egun, Odietako Udalaren parte-hartzea eta laguntza dugu, Bizi Odietako kide gisa.

Hilabete hauetan egindako lanaren ondorioz, abian jarri nahi dugun lehen ekimena ezagutzera eta bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu: **energia fotoboltaikoaren autokontsumo partekatuko instalazio** bat, energia berriztagarria modu kolektiboan ekoitzi eta kontsumitzeko aukera emango duen proiektu bat.

Hori dela eta, **irailaren 24an 19:00etatik 20:30era Odietako Udaletxean** egingo den bilerara gonbidatzen zaituztegu.

Zuen zain egonen gara!

Besarkada energetiko bat,